



MUSIKA JAUREGIA  
EUSKALDUNA  
BILBAO

# Aurrera Fest!

2021



## OSTEGUN HONETAN, UZTAILAREN 1EAN, HASIKO DA “AURRERA FEST” JAIALDIAREN II. EDIZIOA

**Uztailaren 1etik 5era 9 ikuskizun hartuko ditu Euskaldunak: 7 kontzertu eta 2 antzezlan**

*Bilbon, 2021eko ekainaren 28an*

Euskalduna, “Aurrera Fest” programaren bigarren ediziorako motorrak berotzen ari da. Programa horren bitartez, bigarren urtez jarraian, Bizkaiko Foru Aldundiak bertako kultur sektorea babestearen aldeko apustua egin du berriro ere, Euskaldunaren eskutik, “Tokiko kultura babestu. Zatoz Aurrera Festera” claim-aren pean. Ostegun honetan ekingo zaio programari eta datozen bost egunetan guztira 9 ikuskizun izango dira: genero guztietako 7 musika kontzertu eta bi antzezlan.

Sarrerak salgai daude [www.euskalduna.eus](http://www.euskalduna.eus) webgunean eta ohiko beste kanal batzuetan. Prezioak 14,50 eta 26,50 euro artean (kudeaketa gastuak barne)

### **Uztailak 1. HIBAI “GOXOKIAK”. 0B Aretoa. Musika**

Nork ez ditu gustuko goxokiak? Eta, garai mingots hauek ezitzeko, zer hoberik goxoki musikal batzuk baino? Hibai Etxebarriaren lan berriak pandemia garaian idatzirik abestiak biltzen ditu. Zapore propioa duten kantuez osaturiko bonboien kutxa bat. Kantu koloretsu eta alaiak. Maitasunari laudorioak. Zuzeneko berezi honetan, ahotsek hartuko dute protagonismo guztia. Horretarako, “Goizargi Gospel Choir” taldeko abeslariekin lagunduta igoko da Euskaldunako eszenatokira. Ez ezazu duda eta botaziozu axukre pixkat bizitzari!

### **Uztailak 1. HITSCHCOCK. UNA HISTORIA DE SUSPENSE. 0E Aretoa. Antzerkia**

Prestatu, ikusleok!. Suspense maisua omentzen duen antzezlanagatik, Alfred Hitchcock. Zuzendari ospetsuaren filmetan inspiratuta, HITCSHOCK Samuel Gibert-ek idatzitako antzezlan originala da. Snowflake (Arizona, AEB) herriko sitsak jarritako motel batean gertatzen da. Aurrez aurre zeuden bi anaiek (Alex Quiroga eta Eva Merlo) oker zuzendu zuten motela, haien bizitza gloria baino min gehiagorekin zirkulatzen duten bitartean. Baina dena aldatzen da ohiko statu quo-a hautsiko duen bezero baten (Samuel Gibert) etorrerarekin.

Hiru pertsonaien arteko triangulu honek pasioak eta zoramena jauzi egingo ditu emaitza makabroekin.



EUSKALDUNA  
BILBAO

MUSIKA JAUREGIA CONFERENCE CENTRE EVENTS

Kontaktua / Contacto  
636 878 248  
[prentsa@euskalduna.eus](mailto:prentsa@euskalduna.eus)



MUSIKA JAUREGIA  
EUSKALDUNA  
BILBAO

# Aurrera Fest!

2021



## **Uztailak 2. LA BALDOSA FLOTANTE "SONHORAS". 0B Aretoa. Musika**

La Baldosa Flotantek bere seigarren lana aurkeztuko digu: Sonhoras. Bilbon hasi zuen David Larrinagak munduko musiken eta egile-ikuspegiaren artean dabilen musika-proiektu sailkaezina, 2004an. Sonhoras obra sortu berria da, eta musika asko darama bere baitan. Erritmo eta harmonia koloretsuz beteta dago. Edabe bat darama; landare eta lore ugari. Sokak eta danborrak daramatza; dantzak eta oliolanparak, basoaren sakonean. Hitzak, tinta eta kantu asmatuak daramatza. Nabigatzen ari den itsasontzi bat da. La Baldosa Flotantek laukote formatuan joko du Euskaldunan: Luis Galvez "Punto": perkusioa; Mario Larrinaga: teklatuak; Carlos Ortiz: baxua; David Larrinaga: ahotsa, gitarra.

## **Uztailak 2. DAVID LUENGAS "PALABRAS RESCATADAS". 0E Aretoa. Musika**

David Luengasek, talde bikain baten laguntzaz, "Palabras rescatadas" izenburuko bere lehen diskoa aurkeztu du oholtzan. Estilo desberdinetako hamar abesti (pop, rock, balada, rantxera eta abar), baina izendatzaile komun batekin. Letra zaindua duten istorio poetiko oso bereziak.

Horrez gain, erreferentziako artisten bertsiotzat batzuk eta abesti berri bat interpretatuko dituzte.

Abesti bakoitza abestu aurretik, Davidek modu labur eta entretenigarrian azaltzen du hura osatzera bultzatu zituzten motibazioak eta sentimenduak. Publikoarekin konplizitate berezia sortuz eta pixkanaka artistaren unibertsoan sartzerara gonbidatuz. Era honetan, bertan dauden emozioak eta sentimenduak suspertuz.

## **Uztailak 3. LOS TESSEE ROCKING BOYS + BIG BAND "ES DE NOCHE Y ES LA HORA". 0B Aretoa. Musika**

Es de Noche y es la Hora diskoa aurkezteko kontzertua. Ikuskizun paregabeaz gozatzeko aukera izango duzu euskal argentinar bandaren eskutik: hunkitu egingo gaitu gaztelaniaz abestuko duen rock & roll klasikoaren ikuspegiaren barrenako bidaiarekin. Emanaldian, rock-arekin eta beste musika-estilo batzuekin loturiko artista gonbidatuak izango ditu bidaide. Eta, gainera, swing dantzariak ere egongo dira agertokian, show eder horretan rock & roll, country, blues eta bluegrass estiloak uztartuko baitira.

## **Uztailak 3. OIHULARI KLOWN-GABE. 0E Aretoa. Antzerkia**

Clown antzerki-ikuskitzuna. Keinu umorea, testurik gabe. Haur eta familientzat. "Gabe"-k euskaraz barik esan nahi du. Testurik, konplexurik eta nahikeriarik gabeko ikuskizuna da. Bi clown aktorek bi etxegabe antzeztu dituzte, pailazo arloren tradizioz garbienean, "Clochards" ak. Ez dute ezer, eta, agian, horregatik, dena ospakizun-arrazoi bihurtzen da. Etengabeko sormen-ariketa bat, zeinetan edozein keinu ikusleekin harremanetan jartzeko aitzakia den. Ahuldutako pertsonen aldeko kantu bat. Noizbehinka hunkigarria, noizbehinka irabiagarria den ikuskizuna. Bizitza ospatzearen garrantzia gogoratzeko aukera.

## **Uztailak 4. ANDONI MARTÍNEZ BARAÑANO "CANCIONES PARA UNA VIDA".**

### **0E Aretoa. Musika Klasika**

Bizitzan zehar, zenbait unetan musikak inflexio-puntuak markatzen ditu. Ikuskizun honetako abestiak ni izaten lagundu duten puntu horietan oinarritzen dira. Eta gaur denekin partekatu nahi ditut. Une alaiak eta zirraragarriak daude, baina baita, zergatik ez, zailak ere. Denak daude nigan. Granada, Violetas Imperiales, Core 'grato, C'est magnifique eta beste hainbat abestik osatzen dute ibilbide biografiko zirraragarri hau.

## **Uztailak 4. EIN DEUTSCHES REQUIEM - Johannes Brahms / KUP TALDEA. Auditorium. Musika Klasika**



EUSKALDUNA  
BILBAO

MUSIKA JAUREGIA CONFERENCE CENTRE EVENTS

Kontaktua / Contacto  
636 878 248  
prentsa@euskalduna.eus



MUSIKA JAUREGIA  
EUSKALDUNA  
BILBAO

# Aurrera Fest!

2021



KUP Taldea 2003ko udaberrian jaio zen, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia - Musikeneren inguruan, eta hango abesbatzen zuzendaritzako irakasle Gabriel Baltes maisuaren gidaritzapean. Orduetik, Euskal Herriko txoko guztietatik etorritako abeslariz hornitu izan da etengabe, eta, 16 laguneko hasierako taldetxo hura gaur egun ezagutzen dugun talde anitz eta mardulean bilakatu da. 18 urteko ibilbidea, proiektu zorrotz eta programa anitzez josia, oso desberdinak euren artean, baina, betiere, KUP Taldeak bereak egin dituen ezaugarri eta bereizgarriak barne hartu izan dituztenak: zorroztasuna garai eta estilo desberdinetako musika interpretatzean, eta kalitatea, oro har, ahotsei dagokienez, agerraldi guzti-guztietan. Egiteko horretan, euskal musikari ere dagokion tartea eskaini izan dio betidanik, bai egile klasikoen lanak berreskuratuz, bai egun puri-purian dauden euskal musikagileekin lankidetzan arituz, euskal musika korala sustatuz, alegia.

Horren guztiaren erakusgarri dira urte hauetan guztietan erdietsitako lorpenak: hamaika sari nazioarteko lehiaketa eta festibaletan, eta aho bateko aintzatespena kritikaren aldetik.

KUP taldea abesbatza  
Miren Urbieta-Vega, sopranoa  
Mikel Zabala, baxua  
Amaia Zipitria, pianujoela  
Borja Rubiños, pianujolea  
Gabriel Baltes, zuzendaria

## **Uztailak 5. SOINUAK HAIZEAN. 0E Aretoa. Musika Klasika (familiar)**

Barrokoko kontzerturik barrokoena. Bidaiatu musika barrokoan barrena 4 musikariz gidatuta. Telemann, Falconieri, Purcell eta Corelli-ren obra zoragarriak interpretatuko dituzte, hari moduan aktore baten azalpen dibertigarriak kontzertua interesgarria egingo dute. Honek bitxikeriak azalduko ditu musika eta garaiko instrumentuei buruz. Publikoak kontzertu paregabearekin gozatuko du. Haurrek eta gazteek primeran pasatuko dute kalitatezko musika entzuten, kultura ikasten eta aktorearen burugabekeriaz barre egiten.

## **Euskalduna gune segurua**

Gogorarazi behar da Euskalduna Bilbao izan dela COVID-19aren aurreko AENORren ziurtagiria jaso duen lehengo kongresu-jauregia eta bigarren auditoriuma, ezarritako protokoloei esker.

Euskaldunak ekitaldietarako higie eta osasun arloko berme nagusiak ematen ditu. [www.euskaldunabilbao.com](http://www.euskaldunabilbao.com) webgunean, ikus-entzuleek Euskalduna Jauregiak garatutako segurtasun protokoloak dituzte eskura.

***Informazio gehiago jasotzeko eta elkarrizketak egiteko, eskatu Euskaldunako Prentsari konpainiaren edo/eta artistaren kontaktua.***



EUSKALDUNA  
BILBAO

MUSIKA JAUREGIA CONFERENCE CENTRE EVENTS

Kontaktua / Contacto  
636 878 248  
[prentsa@euskalduna.eus](mailto:prentsa@euskalduna.eus)